



KONTRATAZIO PROPOSAMENA

Idiazabalgo haur-, nerabe- eta gazteen ekimenak eta parte-hartzea sustatzeko zerbitzua (PSZ) kontratazeko espedientea hastea proposatzen dut. Orain arte, diru laguntza bitartez sustatu da zerbitzua ematea.

Kontratu nahi dituen zerbitzuak ondoren aipatzen direnak izango dira:

- A. Udal Ludoteka.
- B. Opor garaietako Ludoteka (Aste Santu eta udako oporraldiak).
- C. Gaztelekua.
- D. Opor garaietako Gazte Aisia (Udako oporraldiak).

Hona hemen kontratazio-proposamenaren datuak:

Unitate sustatzailea: Alkatea/Kultura- arloa/ Gazteria arloa

Kontratu mota: Zerbitzua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 10. artikuluan xedaturikoa.

Kontratuaren xedea: Haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako zerbitzuak

Epea: 2 urte

Kontratistari ordaintzeko prezioa:

-Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua: 115.650,48 €; horietatik 95.578,91 € printzipalari eta 20.071,57 € % 21eko BEZari.

Kontratuaren balioetsitako prezioa: 425.129,60 € da (%21eko BEZ-a kanpo)

Loteak: Ez

Luzapena: Bai (2)

Aldaketak: Bai

Eraginak: 2018ko martxoaren 1etik aurrera

Aurrekontu izendapena: 1.227.00.337.20.

Esleitze jardunbidea: Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua; eskaintzak ekonomikoki onurarik handiena duena, esleitzeko hainbat irizpide.

-Izapidea: Arrunta

Idiazabalen, 2017ko azaroaren 22an.

ALKATEAK
Ioritz Imaz Baztarrika